**Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikuluaren eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

**Honako hau EGIAZTATZEN DUT:**

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak**, **2022ko ekainaren 23an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

**4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteei dirulaguntzen eskaerak onartzea, norgehiagoka-prozeduraren bidez.**

Alkate-udalburuaren 2022ko ekainaren 22ko proposamenak dio:

**Gaia:** Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteei dirulaguntzen eskaerak onartzea, norgehiagoka-prozeduraren bidez.

*"ITXARO LEIBAR SANPEDRO ANDREAK, Oñatiko Gizarte teknikaria naizenez, ziurtatzen dut 2022ko ekainaren 7an Ongizate Zerbitzu Batzordeak honako DIKTAMENA eman zuela:*

*Esp. Zb.: OZ-03/2022/DL*

*Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteei dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren*

*Oñatiko Udalbatzak, 2022ko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran onartu zituen Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteei dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emateko oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia (GAO 2022-03-11).*

*1. Finantziazioa:*

*1.1.- Gizarte Zerbitzuen arloko elkarteei zuzendutako dirulaguntzak. 2022ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira hogeita bi mila bostehun eta hamasei euro eta berrogeita hamar zentimo (22.516,55€) gastua baimentzen da, 1.0500.481.231.00.03.2022(167); kontu sailen kargura .*

*Eskaerak egiteko epean **23 elkartek egin dute eskaera**. Instrukzio-faseari hasiera emateko Gizarte Zerbitzuen sailak eskaera horien aurre-ebaluazioa egin du. Ebaluazio horretan egiaztatu da eskatzaileek dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela (I. Tituluaren 5. artikuluan jasota daude) eta aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela eta zuzena dela.*

*Horiek guztiak aztertu ondoren, guztiek betetzen dituzte eskaera onartzeko baldintzak.*

*Azken momentuan, elkarte batek bere eskaera bertan behera lagatzen duela adierazi du, hain zuzen, HERMAZALOÑA elkarteak. Hori horrela **22 elkarteei egingo zaie balorazioa**.*

*Baldintzak betetzen dituzten elkarte guztien balorazioak egin dira. Horretarako honako hauek kontuan izan dira:*

- ✓ *LEHENENGO: Araudiaren II. Tituluaren 3. artikuluan Hautapen eta balorazio irizpideak:*

*1. Dirulaguntzak ematerakoan honako irizpideak hartuko dira aintzakotzat (gehienez 52 puntu). Gutxienez 12 puntu ateratzen ez dituzten eskaerak ezingo dira diruz lagundu.*

*2. Banatzeko den dirua denetara lortutako puntuaketaren arabera banatuko da, punturik gehien lortu duen erakundetik hasi eta banatzeko den dirua erabat bukatu arte.*

*3. Irizpideak eta puntuak*

ESKU047998ed-32f9-4139-b05e-78883651 28e5

*3.1. Programa edo jarduneraren orientazioa (gehienez 10 puntu).*
*- Herritarrei zuzendutako jarduera (6 puntu).*
*- Eragindako pertsonei edo bazkideei zuzendutakoa (4 puntu)*

*3.2. Jardute eremuari dagokionez (gehienez 18 Puntu)*

*- Entitate eskatzailearen egoitza soziala Oñatin (6 puntu)*
*- Entitateak zerbitzuak eskaintzen ditu Oñatin edo jarduerak antolatu (4 puntu)*
*- Entitateak Oñatiko bazkideak ditu (4 puntu)*
*- Oñatiko bizilagunei zerbitzuak eskaintzen dizkieten entitateak (4 puntu)*

*3.3. Entitatearen funtzioak eta aurkeztutako jardueren helburuak (gehienez 24 puntu).*

*- Udal Gizarte Zerbitzuen zereginekin osagarritasuna (6 puntu)*
*- Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailarekin lankidetza (6 puntu)*
*- Gizarte arloko boluntariotza sustatzeko helburua duten ekimenak (6 puntu)*
*- Indarrean dagoen Udaleko berdintasun-planaren helbururen bat edo batzuk lortzearekin duen lotura (6 puntu)*

✓ *BIGARRENGO: Puntuazio guztiak eman ondoren, dirulaguntza-kopurua onartzeko unean, kontuan izan behar dira I. Tituluaren 7. (dirulaguntza kopurua) eta 8. (dirulaguntza emateko prozedura) artikuluetan jasota daudenak.*

- *Ematen diren laguntzak ekintzaren kostuaren %100 izan daitezke.*
- *Dirulaguntza norgehiagoka-erregimenean emango da*

ESKU047998ed-32f9-4139-b05e-7888365128e5

| GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO ELKARTEEI 2022. URTEAN DIRULAGUNTZAK | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ASKO JOTA 52 PUNTU.- GUTXIENEZ 12 PUNTU | PROGRAMAREN ORIENTAZIOA gehienez 10 puntu | | JARDUTE EREMUARI DAGOKIONEZ gehienez 18 puntu | | | | JARDUTE EREMUARI DAGOKIONEZ gehienez 24 puntu | | | | PUNTUAZIOAK | | | Eskatutako Dirulaguntza eta tokatzen zaiena egokituta | diferentzia (22516,55 €-21705,24€) / 18 elkarte | |
| | ELKARTEAREN IZENA | PROGRAMA/PROIEKTUAK | Eragindako pertsonei edo bazkideei zuzendutakoa | Herritarrei zuzendutako jarduera | Egoitza soziala Oñatin | Zerbitzuak edo jarduerak Oñatin antolatu | Entitateak Oñatiko bazkideak ditu | Oñatiko bizilagunei zerbitzuak eskaintzen dizkie entitateak | Udal Gz-en zereginekin osagarritasuna | Oñatiko GZ-ekin lankidetza | Gizarte arloko boluntzariotza sustatzeko helburua duten ekimenak | Indarrean dagoen Udaleko berdintasun-planaren helburu bat edo batzuk | | AURREKONTUA | 22.516,55 | | 811,21 | 45,07 |
| | PUNTUAKETAK | | 4 | 6 | 6 | 4 | 4 | 4 | 6 | 6 | 6 | 6 | 52 | % | Dirulaguntza %koaran arabera | | 45,07ko diferentzia + Eskatutakoa eta tokatzen zaiena egokituta | Eskatutakoa |
| 21 | *ORTZADAR* | *2021: BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDEN ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEN ALDEKO LAGUNTZA PROGRAMA. Akonpainamenduan oinarritzen da; aniztasun funtzionala, mendekotasuna edo medekotasun arriskuan eta* | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 6 | 0 | 6 | 6 | 22 | 3,26 | 734,96 | 734,96 | 780,03 | 1.500 |
| 22 | ***PAUSOKA*** | *Aniztasun funtzionala dute haurrentzako errehabilitazio integraleko zentroak Bazkideak 1 - onuradunak 1 ESKATUTAKOA: 2000,00€* | 4 | 0 | 0 | 0 | 4 | 4 | 6 | 0 | 6 | 6 | 30 | 4,45 | 1.002,22 | 1.002,22 | 1.047,29 | 2.000 |
| 23 | *SAREA FUNDAZIOA* | *Bidean Heziketa Zentro Okupazionalaren proiektua, Arrasaten kokatua. Eguneko zentroa (ekintza eta eskakizun okupazionala duen eremu eta programa) eta esparru aurre laborala (lan mundura itzultzeko edo hasteko gaitasunak dituztenentzat eremu eta programa berezia). 2020an 15 oñatiar izan ziren bertan ESKATUTAKOA: 1500,00€* | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 | 4 | 6 | 6 | 6 | 0 | 26 | 3,86 | 868,59 | 868,59 | 913,66 | 1.500 |
| | | | | | | | | | | | GUZTIRA | | 674 | 100 | 22.516,55 | 21.705,34 | 22.516,55 | |
| | | | | | | | | | | | | | diferentzia | | 811,21 | 45,07 | | |

***Horrenbestez, Ongizate Zerbitzu Batzordeak Tokiko Gobernu batzarrari proposatzen dio honako hau onartzea:***

*<u>LEHENENGOA</u>: Oñatiko Udalbatzak, 2022ko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran onartu zituen Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteei dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emateko oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia (GAO 2022-03-11). Eskaerak egiteko epea apirilaren 11n bukatu zen.*

*<u>BIGARRENA</u>: Eskaera egiteko epe barruan **23 elkartek** egin dute eskaera. Instrukzio-faseari hasiera emateko Gizarte Zerbitzuen sailak eskaera horien aurre-ebaluazioa egin du. Ebaluazio horretan egiaztatu da eskatzaileek dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela (I. Tituluaren 5. artikuluan jasota daude) eta aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela eta zuzena dela.*

*Horiek guztiak aztertu ondoren, guztiak betetzen dituzte eskaera onartzeko baldintzak.*

*Ekainaren hasieran, HERMASOLOÑA elkarteak bere eskaera bertan behera lagatzea eskatu du; beraz, une honetan **22 elkarte kontuan izango dira**.*

*<u>HIRUGARRENA</u>: Araudiaren II. Tituluaren 3. artikuluan aurreikusten diren hautapen eta balorazio irizpideak kontuan izatea.*

*1. Dirulaguntzak ematerakoan honako irizpideak hartuko dira aintzakotzat (gehienez 52 puntu). Gutxienez 12 puntu ateratzen ez dituzten eskaerak ezingo dira diruz lagundu.*

*2. Banatzeko den dirua denetara lortutako puntuaketaren arabera banatuko da, punturik gehien lortu duen erakundetik hasi eta banatzeko den dirua erabat bukatu arte.*

*3. Irizpideak eta puntuak*

*3.1. Programa edo jardueraren orientazioa (gehienez 10 puntu).*
*- Herritarrei zuzendutako jarduera (6 puntu).*
*- Eragindako pertsonei edo bazkideei zuzendutakoa (4 puntu)*

*3.2. Jardute eremuari dagokionez (gehienez 18 Puntu)*
*- Entitate eskatzailearen egoitza soziala Oñatin (6 puntu)*
*- Entitateak zerbitzuak eskaintzen ditu Oñatin edo jarduerak antolatu (4 puntu)*
*- Entitateak Oñatiko bazkideak ditu (4 puntu)*
*- Oñatiko bizilagunei zerbitzuak eskaintzen dizkieten entitateak (4 puntu)*
*3.3. Entitatearen funtzioak eta aurkeztutako jardueren helburuak (gehienez 24 puntu).*
*- Udal Gizarte Zerbitzuen zereginekin osagarritasuna (6 puntu)*
*- Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailarekin lankidetza (6 puntu)*
*- Gizarte arloko boluntariotza sustatzeko helburua duten ekimenak (6 puntu)*

ESKU047998ed-32f9-4139-b05e-7888365128e5

*- Indarrean dagoen Udaleko berdintasun-planaren helbururen bat edo batzuk lortzearekin duen lotura (6 puntu)*

*LAUGARRENA: Puntuazio guztiak eman ondoren dirulaguntza kopurua onartzeko unean kontuan izatea I. Tituluaren 7. (dirulaguntza kopurua) eta 8. (dirulaguntza emateko prozedura) artikuluetan jasota daudenak.*

- *Ematen diren laguntzak ekintzaren kostuaren %100 izan daitezke.*
- *Dirulaguntza norgehiagoka-erregimenean emango da*

*Horiek kontuan harturik, honako elkarteek gainditzen dute beraiek eskatutako dirulaguntza-kopurua; beraz elkarte horiei eskatutakoaren %100 dagokie, hona hemen elkarte horiek:*

| Eskaera zenbakia | Elkartea | 1go banaketaren onarpena | Eskatutakoa | Azken onarpena | Diferentzia |
|---|---|---|---|---|---|
| 10 | Duintasun Elkartea | 1.002,22€ | 684,00€ | 684,00€ | 318,22€ |
| 13 | Gautena | 1.202,66€ | 1.000,00€ | 1.000,00€ | 202,66€ |
| 14 | Gurutze Gorria | 1.336,29€ | 1.115,00€ | 1.115,00€ | 221,29€ |
| 17 | Gipuzkoako Itxaropen telefonoa | 1.069,04 | 1.000,00e | 1.000,00€ | 69,04€ |
| | | | | **DIFERENTZIA GUZTIRA** | **811,21€** |

*Soberan gelditzen diren 811,21 euroak 18 elkarteren artean banatuko dira. Guztira 23 eskaera dira, eta horiei kendu behar zaie 5 elkarte (elkarte batek eskaera ezeztatu duelako, eta arestian aipatutako 4 elkarte). Horrela, elkarte bakoitzari 45,07€ gehitu zaizkio. Batuketak ematen du 2022. urteko deialdirako onartutako diru-kopurua (22.516,55€).*

*BOSTGARRENA: Arestian jasotako guztia kontuan izanik, era berean, OZ-03/2022/DL espedientean jasota dagoena, dirulaguntza-kopuru hauek onartzea:*

ESKU047998ed-32f9-4139-b05e-78883651 28e5

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO ELKARTEEI 2022. URTEAN DIRULAGUNTZAK | | | | | |
| | | PUNTUAZIOAK | | diferentzia (22.516,55 €- 21.705,24€) / 18 elkarte | |
| | ELKARTEAREN IZENA | | AURREKONTUA | 811,21 | 45,07 |
| | PUNTUAKETAK | 52 | % | 45,07ko diferentzia + Eskatutakoa eta tokatzen zaiena egokituta | Eskatutakoa |
| 1 | *ACABE GIPUZKOA (Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkartea)* | 30 | 4,45 | 1.047,29 | 2.000 |
| 2 | *ADAHIGI (Asoc de deficit de atención con hiperactividad)* | 18 | 2,67 | 646,40 | 9.870 |
| 3 | *ADEMGI (Esklerosi Anizkoitza elkartea)* | 30 | 4,45 | 1.047,29 | 1.200 |
| 4 | *AECC (Asoc. Española contra el cáncer)* | 34 | 5,04 | 1.180,92 | 1.345 |
| 5 | *AGI (Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkartea)* | 30 | 4,45 | 1.047,29 | 3.500 |
| 6 | *AGIFES (Buru osasun arazoak dituzten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarlana)* | 36 | 5,34 | 1.247,73 | 3.000 |
| 7 | *ATECE - GIPUZKOA (Daño Cerebral Adquirido)* | 24 | 3,56 | 846,84 | 1.000 |
| 8 | *ATZEGI (Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Elkartea)* | 40 | 5,93 | 1.381,36 | 1.691 |
| 9 | *BIHOTZEZ(Sortzetiko kardiopatiak duten haurrak, gazteak eta haun familien elkartea)* | 24 | 3,56 | 846,84 | 2.000 |
| 10 | *DUINTASUN ELKARTEA* | 30 | 4,45 | 684,00 | 684 |
| 11 | *ELIKAGAI BANKUA.- Eskualderako biltegi orokorra - Bergaratik beste herrietara bideratzen da OÑATI barne* | 36 | 5,34 | 1.247,73 | 1.805 |
| 12 | *ELKARZABAL integraziorako elkartea* | 46 | 6,82 | 1.581,81 | 5.551 |
| 13 | *GAUTENA* | 36 | 5,34 | 1.000,00 | 1.000 |
| 14 | *GURUTZE GORRIA* | 40 | 5,93 | 1.115,00 | 1.115 |
| 15 | *HERMASALOÑA* | 0 | 0,00 | 0,00 | 5.000 |
| 16 | *ITURRIGORRI ELKARLANA (Hezur-muinaren emaileen elkartea)* | 30 | 4,45 | 1.047,29 | 1.225 |
| 17 | *Gipuzkoako Itxaropen Telefonoa 900840845* | 32 | 4,75 | 1.000,00 | 1.000 |
| 18 | *IZAN FUNDAZIOA GIZAKIA HELBURU* | 26 | 3,86 | 913,66 | 1.500 |
| 19 | *IZAN FUNDAZIOA NORBERA* | 26 | 3,86 | 913,66 | 1.000 |
| 20 | *ODOL EMALEAK* | 28 | 4,15 | 980,47 | 1.640 |
| 21 | *ORTZADAR* | 22 | 3,26 | 780,03 | 1.500 |
| 22 | *PAUSOKA* | 30 | 4,45 | 1.047,29 | 2.000 |
| 23 | *SAREA FUNDAZIOA* | 26 | 3,86 | 913,66 | 1.500 |
| | | 674 | 100 | 22.516,55 | |

ESKU047998ed-32f9-4139-b05e-78883651 28e5

- *Elkarte bakoitzari dagokion dirulaguntza onartzea, goian azaldutako puntuazio eta ehunekoen arabera. Guztira, hogeita bi mila bostehun eta hamasei euro eta berrogeita hamabost zentimo*

*(22.516,55€) onartuko dira, 2022ko deialdirako onartutako aurrekontuei dagozkienak. 1.0500.481.231.00.03.2022(167) kontu sailaren kargura.*

- *Guztia OZ-03/2022/DL espedientean jasota dago*

*SEIGARRENA: Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.*

*ZAZPIGARRENGO: Araudiaren I. Tituluaren 9. Artikuluan, Erabakitzeko eta jakinarazteko epea jasota dago. 4. Puntuan honako hau dio:*

*"Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.*

*Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta* ***jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik****. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (https://www.xn--oati-gqa.eus/eu) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa."*

*Horrenbestez, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.*

*ZORTZIGARRENA: Araudiaren II. Tituluaren 6. Artikuluan, Dirulaguntzaren justifikazioa eta epea jasota dago. 5. Puntuan honako hau dio:*

*"Dirulaguntzari emandako erabileraren justifikazioa aurkezteko epea dirulaguntzak emateko ebazpenean finkatuko da. Nolanahi ere, ezingo da dirulaguntzen ekitaldiko hurrengo urteko urtarrilaren 15eko data gainditu!*

*Horrenbestez, hori kontuan izanik, elkarteek dirulaguntzaren justifikaziorako azken eguna* ***2023ko urtarrilaren 9a izango dute****."*

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulu hauek:

30.2 artikulua: "*Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.*"

34.3 artikulua: *"Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da."*

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere **3. Artikuluan 1 eta 2** ataletan honakoa xedatzen du:
*"1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.*
*2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela."*

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Horrenbestez, arestian aipatutako guztia kontuan harturik, Ongizate Zerbitzuen Batzordeak Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari proposatzen dio:

**Lehenengoa.**- Ongizate Zerbitzuen batzordeak egindako proposamenean zerrendatutako elkarteei diru-laguntzaren onuradun izaera berrestea, 2022ko diru-laguntzen deialdia ebaztea eta 22.516,55€ko gastua baimentzea, arestian aipatutako xehetasunekin.

ESKU047998ed-32f9-4139-b05e-78883651285

**Bigarrena.-** Onarpenarekin batera diru-laguntzaren %100 onartzea eta ordaintzea erakunde bakoitzari. Egitasmoak burutu ondoren edo/eta argitalpenak eginak daudenean, jardueren memoria eta jardueren kostu ekonomikoa aurkeztu beharko dute.

Dirulaguntzari emandako erabileraren justifikazioa aurkezteko epea dirulaguntzak emateko ebazpenean finkatuko da. Nolanahi ere, ezingo da dirulaguntzen ekitaldiko hurrengo urteko urtarrilaren 15eko data gainditu.

Horrenbestez, hori kontuan izanik, elkarteek dirulaguntzaren justifikaziorako azken eguna 2023ko urtarrilaren 9a izango dute

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (https://www.xn--oati-gqa.eus/eu) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

**Laugarrena.-** Diru-laguntza hauen onuradunak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

**Bostgarrena.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta gizarte teknikariari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez Kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikuluaren arabera.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.**

**Alkatearen O.I.** **IDAZKARIA**

Izaro Elorza Arregui Iñigo Roldan Catalan



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU047998ed-32f9-4139-b05e-7888365128e5**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910***